#241
DOAN

2026 · 11 · 18
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen



LATIORROKO LONJAKO SUTEA:
Kale egoeran bizi diren pertsonen muturreko egoera azaleratu du Laudioko auzoko gertakariak 2-3 or.

AUZOLANA ELKARTEA:
“Auzoa berpiztea izan da helburua, euskararen eta euskal kulturaren bidez” 22-23 or.







Ilustrazioa: Mikel Casal

Gure **hizkuntzaren** alde egiten dugu, ez gure *ondarea* babesteko bakarrik, baizik eta baita gure *gizartearen* sustraitzea eta kohesioa *bultzatzeko* ere.

LABORAL kutxa
Bada beste modu bat



Erreportajea

Latiorroko lonjetako sutea: Kearen atzean ezkutatzen dena



Latiorroko bi lonja erre ziren iragan azaroaren 6an. Espazio horiek hutsik zeramaten urte luzez, harik eta duela bi urte kale egoeran zegoen jendea sartu zen arte bizitzera. Gertakariak erpin askoko eztabaida sortu du auzoan zein auzotik kanpo.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Unai Larrinaga Eguia Laudioko erdigunean zegoen iragan azaroaren 6an bere etxebizitza blokearen azpiko lonjetan sua piztu zenean. “Ke usaina iritsi zen Herriko plazara, eta hiru dei nituela ikusi nuenean korrika igo nintzen auzora”. Parez pare egin zuen topo egoerarekin: bi suhiltzaile kamioi zeuden Latiorroko Arantzar kaleko lonjatik ateratzen ziren garrak itzaltzen, Ertzaintzak gazte bat zuen atxikituta handik metro batzuetara eta dozenaka bizilagun zeuden inguruan begira.

Suhiltzaileek nahiko azkar lortu zuten egoera kontrolatzea. Hala ere, ez zen txantxa izan. Pisu bloke osoa desalojatu behar izan zuten (32 etxe guztira) eta suak kalte handia eragin zuen elektrizitate-sisteman zein ur-hoditerian. “Kableatua goitik behera aldatu behar izan dugu blokeko A eta B aldeetan, eta baita hoditeriaren zati bat ere. Ez zen ez ur eta argirik egon larunbat osoan zehar”, azaldu du Larrinagak. Bere gain geratu dira kudeaketa lanetako asko, komunitateko presidentea baita. Lehen unetik egon da Udalarekin edota Ertzaintzarekin harremanetan. “Orain aseguruekin gabiltza gora eta behera, urte osorako lana dago hemen”, kontatu du.

Buru osasuna kale egoeran

Baina sutearen ondorioak kalte fisikoetatik harago joan dira. Erretako lonjak urte luzez egon dira hutsik, harik eta duela bi urte inguru kale egoeran zeuden gazte migratu batzuk sartu ziren arte. Jende ugari igaro da ordutik hona bertatik, baina azken hilabeteetan hiru pertsona egon dira barruan bizitzen, horietako bi lonjetako batean eta bakarra bestean. Azken hori izan zen sutearen egunean poliziak atxikitu eta ondoren espetxeratu zuena. Beste biak, aldiz, kanpoan zeuden, eta beste toki batzuetara joan dira bizitzera.

Larrinagak ez du harreman askorik izan gazte horiekin bi urte hauetan. “Behin zaborra botatzera jaitsi nintzen eta atxilotutako gaztea etorri zen nigana, poltsa ez botatzeko eskatzen. Barruan zegoena arakatzeari ekin zion”, oroitu du, “arima lurrera erortzen zaizu halakoetan, pertsona hori edozein dela ere”.

Gazte hori bazen ezaguna auzoan, Larrinagak azaldu duenez. “Problematikoa zela esaten zen, autoak begiratzen zituela…”. Hori bai, nabarmendu nahi izan du beste biekin ez dela arazorik egon, eta iskanbilak, zeudenean, euren artekoak zirela, ez bizilagunekin.

Antzeko ikuspegia plazaratu du anonimotasuna mantendu nahi izan duen beste herritar batek. Berak bai, harreman zuzena izan du atxilotutako gazte migratuarekin, eta azaldu du buru osasun arazoak garatu dituela bertan bizi izan den denboran. “Etorri zenean gazte normal bat zen, baina okerrera jo zuen denborak aurrera egin ahala. Lonja horretan nik ez nuke ordu bat ere ez aguantatuko, bera bizi zen zatian ez zegoen ez argi ez urik. Droga kontsumitzen hasi zen, eta azken urte erdian okerrera egin zuen zeharo, arriskutsua bilakatu zen”.

> “Etorri zenean gazte normal bat zen, baina okerrera jo zuen denborak aurrera egin ahala. **Lonja horretan nik ez nuke ordu bat ere ez aguantatuko”**

Sutearen egunean ere egon zen berarekin: “Zerbait gertatzen zitzaion. Malkoak zituen begietan. Sutearen ostean, aldiz, hil nahi zuela esaten zuen, kartzelara joan nahi zuela. Erabat joanda zegoen, uste dut ez zela kontziente”. Auzokide horrek argi du, espetxeratu baino, “osasun zentro batean sartu” beharko luketela. “Orain oso oso egoera latzean dago”.

Aiaraldea Komunikabidea eskualdeko zenbait osasun langilerekin jarri da harremanetan kale egoeran dauden pertsonek

buru osasunera begira dituzten baliabideen inguruan galdetzeko. Azaldu dutenez, ofizialki hiru hilabeteko egonaldia probatu behar dute (gehienetan errolda bidez) medikua aukeratu eta bide normaletik buru osasuneko zerbitzuetara jotzeko. Bestela, ospitaleetako larrialdi zerbitzuak dira geratzen zaien aukera bakarra. Hala ere, zalantzan jarri dute arazo horiek kontsulta batetik bideratu ahal izatea "bizitzeko baliabiderik ez daudenean" edo gizartean "gabezi estrukturalak" egonda.

Elkarbizitza eta arrazakeria

Latiorroko sutearen irudiak bolo-bolo zabaldu ziren sare sozialen bidez, eskualdeko zein Euskal Herriko mugak gainditu eta Espainiako eskuin-muturreko hainbat agenteren eskuetara iritsiz. Besteak beste, Vito Quilesen orbitakoak diren RescueYou edota WallStreetWolverine influencer-ek zabaldu zuen gertakariaren bideoa.

Bizilagunen artean ere eztabaida sortu du gertatutakoak. Larrinagak ulertzen du jendea haserre egotea, bera ere haserretu zelako sutearen egunean. Azaldu duenez, beste bi gazteak gau horretan bertan saiatu ziren lonjan berriz sartzen. "Gaueko hamabiak aldera topatu nituen. Esan nien sentitzen nuela, baina gertatu zenaren ostean ezin niela berriz sartzen utzi. Eztabaidatu gabe alde egin zuten. Lasai egon izan balira jende bati ez litzaioke axolako eurak bertan bizitzen egoteak, baina suteak eragin izan du kontrako noranzkoan". Hala ere, jarrera batzuk tokiz kanpo daudela ere uste du bizilagunak. "Komentario asko entzun genituen suaren gauean bertan: barruan erre behar zirela, migranteak gustuko baditugu gure etxera eraman behar ditugula, Gobernua aldatu behar dela...". Komunitateko presidenteak ez zien iruzkin horiei unean bertan erantzun, baina biharamunean bai, anekdota batek horretara bultzatu zuelako: "Iturgin bila nengoen izorratutako hoditeria konpontzeko. Hiru deitu nituen baina ezin ziren etorri, eta deitu genuen laugarrena magrebtarra zen. Orduan, komentarioak egiten egon zen bizilagunetako bati esan nion agian isilik egon behar zuena bera zela, atzerritar bat kontratatu behar izan genuelako egoera bideratzeko".

Erakundeei interpelazioa

Larrinagari sutearen biharamunean gertatutako anekdota hori nahiko sinbolikoa da, lotuta baitago, hein batean, bere ustez erakunde publikoek kale egoeran dauden pertsonei eman beharko lieketen alternatibarekin. "Gehiago lagundu beharko litzaieke lan egiteko tituluak lortzeko. Entzun dudanagatik, lonjan bizi zen gazteetako batek lana topatu zuen Bilbon, eta joan egingo zen", argudiatu du, eta bizitoki alternatiba bat eman beharko litzaiekeela ere defendatu du: "Elkarrizketa honetara etorri baino lehen nire ama jarri zait kontatzera bere garaian ere pertsona migranteei aterpea ematen zitzaiela etxeetako lastategietan. Orduan ere pertsona ezezagunak ziren, baina zuriak. Hori da ezberdintasuna".

Antzeko iritzia plazaratu du elkarrizketatutako beste auzokideak ere: "Hona bere bizitza hobetzera etorri den jendea ez da etorri lapurretetan aritzeko asmoarekin. Laguntza jaso beharko lukete: lana bilatzeko, laguntza psikologikoa... esango nuke gaur egun ez dutela halakorik jasotzen, edo ez behar beste. Etxe edo lonja bat okupatzea ezin da soluzioa izan. Zentroren batera joan beharko lirateke... ez da erraza".

Dena den, bizilagun horrek argi du zein izan beharko litzatekeen lehentasuna: paperak ematea egoera irregularrean dauden pertsona migratu guztiei. Izan ere, paperak izan ezean ezin dute lan egin, eta "bukle" batean harrapatzen ditu horrek. "Lapurrak direnak hemen bilakatu dira lapur. Hona etortzeko burua izan behar da: mapa bat marraztu, kamioi baten azpian edo ontzi batean sartu... Jende azkarra da datorrena, sistema da gaizki dagoena. Jendea behar da lan egiteko. Eman paperak, eta lan egin nahi ez badute orduan bai, itzuli daitezela euren herrialdera. Horrela animatzen dituzu eta ez dira hondoratzen". Hala ere, ñabardura garrantzitsu bat egin du: lana bai, baina ez edozein preziotan. "Estatu honetan jende migratu asko dugu imajinatu ezin ditzakegun baldintzetan lan egiten".

Baina elkarrizketatutako bi bizilagunek aipatutako balizko soluzio horiek nahiko urrun daude egungo errealitatetik. Laudion 15 pertsona kontatu ziren kale egoeran bizitzen 2022an eginiko zenbaketan, bi urte lehenago bat bera ere ez . Urte berean eginiko azterketa batean, Espainiako Estatistika Institutuak ondorioztatu zuen kale egoeran bizi ziren pertsonen %59,6ak zituela sintoma depresiboak, %37,3ak gaixotasun kronikoren bat, eta %9,4ak buru nahasmenduren bat. Gainera, EAEko kaleetan identifikatutako pertsonen %10,9ak pairatu ditu erasoak, eta %16ak lapurretak.

Eta handituz doa arazoa. Eskualdean nabarmen egin du gora kale egoeran bizi den jendearen kopuruak azken bi urteetan. Ondo Etorri elkarteak, adibidez, 40-50 pertsona artean artatzen ditu astero Laudion.

Baina erakunde publikoen erantzuna ez da tamainakoa izaten ari. Bilboko Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua kolapsatuta dago, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren hitzetan. Plataforma horrek salatu duenez, kale egoeran bizi diren herritarrek gutxienez hiru hilabete itxaron behar izaten dute jantoki txartel bat lortzeko, eta urtebete inguru aterpetxe batean lekua izateko. Egoera horren aurrean, eskualdera jo dute kale egoeran bizi diren pertsonetako asko, C-3 linea baliatuta. Baina egoera ez da hobea eskualdean: ez dago gaua pasatzeko inolako baliabide publikorik eta, negua hasteko hilabete baten faltan, ez dirudi aktibatuko denik.

DATUTAN

15

pertsona kontatu ziren Laudion kale egoeran 2024an eginiko zenbaketan, baina kopuru hori nabarmen hazi da ordutik hona.

0

Aiaraldean ez dago gaua pasatzeko inolako aterpe edo baliabide publikorik.

3

hilabete itxaron behar dira gutxienez Bilbon jantoki txartel bat eskuratzeko, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren hitzetan.

Urtebete

inguru itxaron behar da Bilboko aterpetxe batean egonaldia egin ahal izateko, Ongi Etorri Errefuxiatuaken arabera.







Ezkerrean, Unai Larrinaga Eguia lonjaren aurrean bere txakurrarekin; eskuman, sutearen eguneko eta lonjaren barruko irudiak. **Aiaraldea.eus**

Herriz herri

Azalera podcasta

"Administariak azken bi urteak hartu ditu aintzat, eta **guk diogu arazoa 2008tik datorrela"**



Oier Bidaurrazaga
TUBOS REUNIDOSEKO LAB-EKO ORDEZKARIA

"Ondo pasatzea eta jendearekin egotea da garrantzitsuena txapelketetan"



Ane Ramos Izaga
PATINATZAILEA

Entzun gure podcastak www.aiaraldea.eus/nahieran atarian edo QR-a eskaneatu

Aiaraldea

Jaia eta hizkuntzaren aldeko aldarrikapena uztartuko ditu Aiaraldeko Euskararen Egunak



Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak bere hamargarren urteurrenea ospatuko du azaroaren 28an. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares


Euskara bultzatzeko beharra lehen lerrora ekarriko dute **azaroaren 28an Laudion**

Laudio izango da berriro ere Aiaraldeko Euskararen Egun Bateratuaren eszenatokia. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak antolatuko duen ekimenak egun osoko egitaraua eramango du Laudiora datorren azaroaren 28an eta ospakizunetik haratago, hizkuntzaren kinka larria ere mahaigaineratuko dute.

Izan ere, Kontseiluak lehen lerroan jarri du euskara erabiltzeko eta defendatzeko premia, adierazteko hizkuntza une kritiko eta erabakigarrian dagoela eta euskaradunen bultzada behar duela: "Giharra ateratzeko garaia da, aktibatzekoa, parte hartzekoa... Eta baita ospatzekoa ere. Eskualdeko euskaldunok bildu beharra daukagu, elkarrekin gozatu eta indartu. Sareak sortu eta elkar ezagutu (...) Orain zuen indarra behar dugu. Erdu gurekin. Bide bat egin dugu eta bide bat dugu egiteko".

Azaroaren 28an ekintza mordoa prestatu dituzte goizetik gauera arte: Mendi ibilaldia, puzgarriak, ikuskizunak, konztertuak, herri bazkaria...

Azken 10 urteetan eskualdeko udalerri guztiak bisitatu ditu Aiaraldeko Euskararen Egun Bateratuak.



Babestutako edukia



IRAGARKI POLITIKOA | Babeslea: EUSKAL HERRIA BILDU | Gardentasun-oharra: iragarkiak.ehbildu.eus

Herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldean bizi nahi dutela aldarrikatu dute milaka herritarrek greba orokorrean







Goizean goizetik mobilizazioak eta protestak hedatu ziren Aiaraldean, etxebizitza eskubidearen aldeko Greba Orokorrean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Euskal Herriko gehiengo sindikalak eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuek iragan azaroaren 11n deituriko greba orokorrak oihartzun zabala izan zuen eskualdean. Piketeak goizeko lehen ordutik mobilizatu ziren Laudio eta Amurrioko industriagune nagusietan, eta Aiaraldeko Greba Batzordeak deituta dozenaka grebalarik A-625 errepidea moztu zuten, auto ilara luzeak sortuz. Arratsaldean Laudiok gainezka egin zuen eskualdeko mobilizazio nagusian. Herrigunea zeharkatu zuten milaka pertsonek, eta etxebizitza eskubidearen aldeko mobilizazioak hedatu ziren Aiaraldean, etxebizitza eskubidearen aldeko Greba Orokorrean.

Kaleetan soilik ez, eskualdeko lantegietan ere nabarmena izan zen greba orokorraren eragina, sindikatuek azaldu dutenez. Langile erakundeek jasotako datuen arabera, jarraipenak % 80ko langa gainditu zuen eskualdeko fabrika nagusietako produkzioko langileen artean, % 90tik gora kokatuta Tubacex zein Tubos Reunidosen kasuetan. Merkataritzan ere jarraipen zabala izan zuen atzoko greba egunak. Ez dago datu ofizialik, baina goizeko txanpan Laudio zein Amurrioko saltoki eta taberna gehienek jaitsi zuten pertsiana, Aiaraldea Komunikabideak eginiko jarraipenaren arabera. Gainera, merkatal gune handiago batzuk ere ez ziren ireki.

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO
MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA
Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa
AHOBIZI
Gurekin ere, euskaraz!
Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak
Iturralde, 2 AMURRIO
945 980 206
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com
AHOBIZI
25 urte
baino gehiago euskaraz zerbitzua ematen

Herriz herri

Aiaraldea

Tarifa berriak ezarri ditu Arabako Foru Aldundiak AP-68 errepideko Altubeko ordaintokian



Ibilgailu arinentzako tarifa murrizketa % 70koa izango da. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Esleipen pribatua izatetik Arabako Foru Aldundiaren eskumena izatera igaro da AP-68 errepidearen kudeaketa. Azaroaren 11tik du erakunde publikoak errepideen kudeaketa bere gain, eta %70eko beherapenak iragarri ditu prezioetan. Jon Nogales Mugikortasun Foru Diputatuak jakinarazi duenez, sistema berria pixkanaka ezarriko da, eta iragan asteazkenean hasi zuten lehen fasea abenduaren 15ean amaituko da. Lehenengo fasean, hegoalderanzko, Burgoserako/Errioxarako, Arabako tarte osoko 55,2 kilometroko joan-etorri guztiak tarifatuko dira. Iparralderantz, berriz, Altube-Bizkaiko muga eta Arabako barne ibilbideak soilik tarifatuko dira behin-behinean.

Horrela, Bizkaitik edo Arabatik hegoalderantz joaten diren ibilgailuek tarifa osoa ordaindu beharko dute; Zaragozatik/Errioxatik Aretaraino joaten diren ibilgailuek, ordea, Altube-Bizkaiko mugara arteko tartea bakarrik ordaindu beharko dute behin-behinean. Aitzitik, Arabako barne ibilbide guztietan jarriko dituzte indarrean tarifak; hau da, Zambranako, Subillako, Ribabellosako eta Altubeko ordainlekuetan sartzen edo horietatik irteten diren ibilgailu guztiek ordaindu beharko dute.

Hobariak

Prezio berriak ezezik, Aldundiak azaldu du hobariak ere egongo direla. Argitu dutenez, Bizkaiko zatian soilik ezarriko dute, tarte horren tarifa murrizketa txikiagoa konpentsatzeko (autobideko Arabako tartean tarifa % 70 merkeagoa izango da turismoentzat; Bizkaiko tartean, berriz, %20koa). Hobarien programa eguneratzearen helburua da Bizkaiko tarteko benetako tarifa ere izatea gaur egungoa baino %70 merkeagoa ohiko erabiltzaileentzat. Horretarako, programak Bizkaiko tarteko tarifa arruntaren gaineko hobaria emango die bidea erabili ohi duten arabarrei. Hobari hori Aiaraldean bizi direnentzat izango da onuragarria batez ere, "Bilborekin duten lan, ekonomia eta gizarte harreman berezigatik".



Herriz herri

Orozko

San Antolin jaiei eta Gorbeiako Turismoko Plan Estrategikoari buruzko iritziak jaso nahi dituzte



Aurtengo mozorro lehiaketako irudia. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Sanantolinei buruzko iritzia jaso nahi ditu Orozkoko Udalak eta gai zehatzei buruzko galdetegia egitea proposatu die herritarrei hemen. Atzo bertan sareratu zuen galdetegia.

Tokiko erakundeak oso gai zehatzak plazaratu ditu zazpi galderen bidez orozkoarren ideiak eta hausnarketak jasotzeko: egitarauan zer erantsi edo kendu, nor izendatu pregoilari...

Turismo plana Gorbeialdean

Bestalde, Gorbeiako Turismoko Plan Estrategiko berria (2026-2030) osatu nahi dute eremu horretan barreiatuta dauden udalerri anitzek, eta horretarako galdetegia prestatu dute ere Gorbeialdeko Kuadrillak eta ADR Gorbeialdek.

Egitasmoaren xedea da Bizkaia eta Araba artean dagoen inguru horretako herritarrek euren iritzia eskaintzea turismoaren arlo anitzei buruz. Izan ere, galderek fenomeno horren inguruko esparru anitzak jorratzen dituzte eta norberak erantzun dezake uste duenaren arabera.

Batzutan adierazpen batzuk puntuatu beharko dituzte parte hartzaileek, jakiteko zein neurrian dauden horiekin ados. Beste batzuetan, aldiz, lehentasunak ezarri beharko dituzte aukera ezberdinen artean.

Berez, planaren helburuak dira nortasuna duen garapen ekonomikoa sustatzea, tokiko enpresentzat eta langileentzat aukerak sortzeko eredu orekatu eta jasangarri baten bidez; baliabideen kudeaketa hobetzea, bisitarien eta bertako herritarren arteko bizikidetza harmonikoa bermatzeko; eta Gorbeiaren izaera eta nortasuna zaintzea, paisaiak, herriak, kultura eta bizimodua babestuz.

INSTALACIONES
RAGA IBARRONDO
ITURGINTZA · BEROKUNTZA
GASA · AIRE GIROTUA · AEROTERMIA
Tienda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55
José Madinabeitia, 1 Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

Urduña

Urduñak lortu egin du Ferrero Rocheren lehiaketaren hurrengo fasera igarotzea

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ferrero Rocher enpresa italiarraren *Juntos brillamos más* lehiaketako bigarren fasean sartzea lortu du Urduñak. Gauzak horrela, EAEko ordezkaria da hiria eta irabazlea izanez gero, konpainiak argiteria berezia instalatuko du Gabonetan bere kaleetan barrena. Nola ez, gainditutako faseko udalerririk bozkatuena izan da **Azaroaren 30era arte** egongo da irekita bozkatzeko aukera berria Urduña, baina jadanik abian dagoen honetan zeroan daude markagailuak berriro. Hortaz, Udalak gogoratu die aurreko kanporaketan bozkatu zutenei berriro egin dezaketela. Bozketan parte hartzeko Udalak Internet bidez zabaldutako estekoa baliatu behar dute interesdunek. "Lagundu gure hiriari Gabon jaien magia bertara ekartzen eta eman botoa berriro", zabaldu du tokiko erakundeak bere komunikazio kanaletan.



Azaroak 28, larunbata
Aiaraldea Eskualdeko Euskararen Eguna Laudion.

Azaroak 29, igandea
10:30-13:00 Amurrioko I. Padel Topaketako finalak padel lekuan.

Abenduak 3, osteguna
Euskararen eguna
17:00-18:30 "Dantzatzeko prest" haur berbena herriko plazan (eguraldi txarra eginez gero San Anton plazan).
18:30 Kandelen argipean ekitaldia herriko plazan (eguraldi txarra eginez gero San Anton plazan).
19:00 Txokolate jana herriko plazan (eguraldi txarra eginez gero San Anton plazan).
20:00 Julen Axpe "Arrakastarako bidea" bakarrizketa umoretsua doan, Amurrio Antzokian.

Abenduak 4, ostirala
09:30-13:30 Literatura irakurraldia plazan (eguraldi txarra eginez gero udalbatza aretoan).

Abenduak 10, osteguna
19:00 Aiaraldeko Bideo Kopla Lehiaketa Amurrio Antzokian (proiekzioa, sariak eta bertso saioa). Sarrera doan.

Abenduak 12, larunbata
20:00 "AA Aita!" Jon Plazaola Amurrio Antzokian. Sarrerak 10€.

Abenduak 13, igandea
12:30 eta 17:00 (bi pase) LOA eta LAIAren haur ikuskizun musikala Amurrio Antzokian. Sarrerak 6€.

Urtarrilak 2, larunbata
19:00 Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalisten bertso saioa Amurrio Antzokian. Sarrerak 10€.

AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Artziniega

Benjamin Respaldiza zendu da, Angolako misiolari artziniegarra



Benjamin Respaldiza Artziniegan 2022an jaso zuen omenaldian. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Azaroaren 8an zendu zen Benjamin Respaldiza apaiz artziniegarra Angolan, bertan baitzegoen misiolari lanetan. Luandatik Malanjera bidaiatzen zegoen obra baten inaugurazioan parte hartzeko bihotzeko bat eman zionean, Gasteizko Elizbarrutiak azaldu duenez.

Erakunde erlijiosotik nabarmendu dutenez, artziniegarraren heriotzak samin handia eragin du Gasteizko elizan, eta baita Ekuadorren eta Angolan ere, bi herrialde horietan jardun baitzuen bere ibilbidean zehar.

Respaldiza 1947an jaio zen Artziniegan eta 1972an bilakatu zen apaiz. Erakunde katolikoko kideek azaldu dutenez, "misioilari espirituak" markatu zuen bere bokazioa hasieratik, pertsona pobretuenen alde eginez.

Gauzak hala, 1973tik 1980ra egon zen Angolan, eta gertutik bizi izan zuen bertako guda zibila. Ekuadorrera joan zen gero. Los Rios probintzian egon zen batez ere jardunean. Egonaldi horretatik bereziki nabarmendu dute La Yucako nekazaritza komunitatearen defentsan izan zuen inplikazioa, bertako bizilagunak euren lurretatik bota eta herriko etxebizitzak eta eskola suntsitu zituztenean.

Aiaraldera lotua

Bere bizitzaren zati handi bat eskualdetik kanpo eman zuen arren, Respaldizak harreman estua mantendu zuen Artziniegarekin eta Aiaraldearekin, apaiz moduan jardun baitzuen, hainbat ekimen sozial eta kulturaletan parte hartzearekin batera, Artziniega Museoan kasu. Horren mugarria izan zen 2022an Artziniegan bertan jaso zuen omenaldia, apaiz moduan mende erdi bete zuenean.

Arrankudiaga

Lagunduta ez dauden adingabeak gizarteratzeko zentroa ireki zuten udan Arrankudiaga-Zollon



Duela hilabeteak ireki zuten zentroa Arrankudiaga-Zollon. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Uda hasieran ireki zuen Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak lagunduta ez dauden adingabeentzako zentroa Arrankudiaga-Zolloko industriagune batean. Zerbitzuaren helburua da egoera zaurgarrian dauden eta babes familiarra ez duten adingabeak zaindu, trebatu eta gizarteratzea.

Berez, Aldundiak azpiegitura ireki baino aste gutxi batzuk lehenago jakinarazi zion erabakia Arrankudiaga-Zolloko Udalari eta, ezustean harrapatu bazuen ere, tokiko erakundeak adierazi zuen prest dagoela modu proaktiboan jarduteko adinez txikikoen integrazioan.

"Herrian erroldatzen direnen unetik hemengo herritarrak dira eskubide osoz, hortaz, Udalak ahalegina egingo du zerbitzu publikoak eskura izan ditzaten eta modu proaktiboan arituko gara elkarteekin, gazteek ezagutu ditzaten eta parte har dezaten, gizartean mugildu daitezen", azaldu du Txutxi Ariznabarreta alkateak.

Hain zuzen, zentroan bizi diren hainbat gaztek herriko elkarteekin harremana dute, bereziki, kirolean jarduten diren horiekin. Harreman horrekin, Urduñan landutako bidea hartu dute Arrankudiaga-Zollon.

BAKEA, ETXEA ETA LANA.
BOZKATU IRENE/A29
https://transparencia.podemos.info/cuentas-claras/partido/cuentas-anuales/2026


Hamar urte **euskararen bidetik**

Ez ditu garai xamurrak euskarak. Bidegurutze batean dago, ataka larrian. Oldarraldi euskarafobo betean. Baina badu etorkizunik eta hori ibilian eraikitzea besterik ez dago: hizkuntza eskubideak defendatuz, ezagutza zabalduz, erabilera hauspotuz... Jarraitu beharrekoa, ordea, ez da hutsetik abiatutako bidea. Horren adibide da azken hamar urteetan Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak urratutako bidea. Eskualdean modu atomizatu eta disgregatuan lanean ziharduen euskalgintza bildu, sinergiak bilatu eta estrategia komunak garatzeko espazioa sortuz.

10 urteko bidea

2015ean abiatutako sukalde lanak 2016an egin zuen jauzi plaza publikora. Urte hartan jaio zen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua, bere baitan alor desberdinetako eskualdeko 42 entitate bilduz: sindikatuak, ikastetxeak, gazte elkarteak, kirol taldeak, kultur esparrukoak, euskara elkarteak, hedabideak... Funtsean, euskararen normalizazioan lan egiten duten edo lan egin nahi duten entitate eta norbanakoen baturak osatu du kontseilua. Modu berean, Aiaraldeko instituzioekin elkarlan sare estua eratu da ere, horren adibide dira instituzio desberdinekin sinatutako elkarlan hitzarmenak edota euskara teknikarien mahaia. Oinarria jarrita, 2016an bertan Amurrion ospatutako Aiaraldeko Euskararen Egun Bateratuan, milaka lagunen aurrean, heldu zion kontseiluak eskualdea euskalduntzeko erronkari. Ordutik hamaika izan dira euskararen normalizazioan aurrera urratsak emateko garatutako proiektu eta egitasmoak. Besteak beste, Euskaraldiaren aitzindari izan zen Aiaraldea Ahobizi eta Belarriprest dinamika jarri zuten abian 2017an, ia 5.000 herritar 30 egunez euskaraz bizitzeko hautuan aktibatuz. Euskara bide, zubiak eraiki ditu ere eskualdean elkarbizi diren gainerako hizkuntzekin. Horren adibide dira azken urtean argitaratutako hiztegi desberdinak. Egindako lanak eskualdetik kanpo ere izan du oihartzuna eta berriki jaso du aitortza hori Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunean.

Interpelazio eta salaketek ere bete dute Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren agenda azken hamarkadan. Euskararen aurkako bazterkeria, tratu txarra edo eskubideen urraketen aurrean hainbatetan atera da kalera kontseilua, Euskal Herriko Euskalgintza Kontseiluarekin batera, besteak beste.

Eskualdea saretu eta gorpuztu du kontseiluak 10 urteko bidean. Aiaraldea osatzen duten bederatzi udalerriak lotu ditu eta herritarrak ahaldundu ditu. Baina oraindik bada zer egina. Giharra ateratzeko garaia du euskarak, indarrak biltzekoa. Orain arte bezala, horretan jarraituko du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak: "bide bat egin dugu eta bide bat dugu egiteko".

2016

Eskualdeko 40 entitatek Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua sortu zuten, euskararen normalizazioan elkarlanean aritzeko asmoz: sindikatuak, ikastetxeak, gazte elkarteak, kirol taldeak, kultur eragileak, euskara elkarteak edota komunikabideak... bildu ziren bertan, besteak beste.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren sorrera



2017

Ahobizi eta Belarriprest!

Euskaraldiaren aurrekari izan zen dinamika jarri zuen abian kontseiluak: *Aiaraldea Ahobizi eta Belarriprest!* 30 egunez, eta astebeteko txandetan, euskaraz bizitzeko erronkari heldu zioten bederatzi udalerrietako 4.500 herritarrek.



2018

Kontseilua sortu zenetik 3 urteko ibilbidea eginda, euskararen normalizazioak Aiaraldean behar duen **plan estrategiko partekatua** osatzeko lehen gogoeta saioak antolatu zituen.



Euskaraldia

Aurreko urtean abiatutako *Ahobizi eta Belarriprest* dinamikari jarraipena emanez ospatu zen eskualdean Euskaraldiaren lehen edizioa.

Kronologia





Aiaraldeko Euskararen Egun Bateratua ospatu zen lehen aldiz Amurrion, eta “Aiaraldea euskalduntzeko” erronkari heldu zion kontseiluak.



Aiaraldeko Udal guztiekin bai eta Aiaraldeko Kuadrillarekin **hitzarmena sinatu zuen** kontseiluak, erakunde publikoekin elkarlan jarraitua bultzatzeko.



2019

Udal hauteskundeen atarian *Ez We Can’t* dinamika jarri zuen martxan kontseiluak. Guztira eskualdeko 25 talde politikok hartu zituzten euskararen normalizazioan eraginkortasunez aurrera egiteko konpromiso zehatzak.

Ez We Can´t



2021

Gurasoleku ekimena jarri zuten abian, euskararen transmisioa sendotzea helburu, 0-5 urte bitarteko haurren familiei zuzendutako ekimena. Guztira 500 familia baino gehiagoren parte hartzea izan du egitasmoak, eta azken ikasturtean Artziniega eta Okondora iritsi da.

2022



Epaile batek euskara “zaila” dela argudiatu zuen Laudioko Udaleko hizkuntza eskakizun bat saihesteko. Euskal Herriko Euskalgintzaren Kontseiluak eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak elkarretaratze bateratua egin zuten, “euskararen aurkako oldarraldiaren” kontra.

Hezkuntza Foroa modu iraunkorrean eratu zuten, eskualdeko ikastetxe guztiak euskararen normalkuntzan aurrera begira jartzeko asmoz.

Hamar urte **euskararen bidetik**

2023 Hautagai euskaldunak

Udaletxeetan hizkuntz eskubideak bermatzen direla zirutatzeko *Hautagai Euskaldunak* dinamika jarri zuten abian 2023ko hauteskundeetan. Udal hauteskundeetako zerrendak banan banan baloratu zituen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, hautagai euskaldunen presentziaren arabera. Halaber, 2019ko kanpainan talde politikoekin bildutako konpromisoak berritu zituzten **Bai We Can** dinamikaren edizio berri batean.



Futbola Euskaraz manifestua plazaratu zuten eskualdeko hainbat kirolari erreferentek. Aiaraldeko futbol taldeek euskararen normalkuntzan pausuak eman eta entrenatzaile euskaldunak eskatzeko.

Amurrioko Udalak euskara teknikariaren lanpostua kentzea erabaki zuen 2023ko uztaileko Udal Osoko Bilkuran. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak "euskararen beraren eta euskararen normaltasunaren aurkako eraso bat" bezala kalifikatu zuen erabakia. Kontseilutik egindako lanari esker lanpostua berrezartzeko konpromisoa hartu zuen tokiko erakundeak. Hurrengo urteetan beste hainbatetan salatu zuen kontseiluak Amurrioko Udalak euskararen alorrean hartutako erabakiak, hala nola udal kirol guneen lizitazioan edota Aiaraldea Komunikbaideari diru-laguntza kentzerakoan.





Urte honetan heldu zion Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak bere proiektu handinahienari: Aiaraldeko **Herri Curriculuma** osatzea. Hainbat jardunaldi eta hausnarketa bideratu ditu horretarako. Eskualdeko jakintzak bildu, sistematizatu eta belaunaldi berriei transmititzeko helburua du proiektu kolektiboak.

2024 Euskararen Semaforoa



Gora Aiaraldeko Euskaldunak!



2025

Herriz herri eta ikastetxez ikastetxe eskualdean hitz egiten diren hizkuntza kopurua zenbatzeari ekin zioten **Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa** proiektuaren barruan. Guztira 40 jatorri eta 25 hizkuntza desberdin baino gehiago zenbatu zituzten. Datuak eskutan "hizkuntza arrotzik ez dagoela" eta euskara guztien arteko zubia dela aldarrikatu zuten.



Kronologia



Aiaraldeko elkarte eta entitateek Euskararen Semaforoa inplementatzeari ekin zioten, deialdi desberdinetan euskararen presentzia eta absentzia ikusgarri egiteko tresna.

Jai



Aiaraldeko Euskara Teknikarien mahaiak abiatutako dinamikatik tiraka, *Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!* dinamika aurkeztu zuten Aiarako jaien atarian. Jai eremuan euskararen aldeko konpromisoak indartu eta euskara ikusgarri egitea du xede dinamikak. Laudio, Urduña, Orozko, Arrankudiaga-Zollo, Aiara eta Artziniegako Udalek babestu dute egitasmoa eta urtez urte eragile berriak batu dira dinamikara. 2026an ostalariei zuzendutako konpromisoen gida aurkeztu zuten.



Hezkuntza Foroan urtebetez garatutako hausnarketa prozesuaren ostean **Euskara Gabe Ez Gara manifestua** sinatu zuten Aiaraldeko 12 ikastetxek. “Euskalduntzea egoera larrian dagoela” ondorioztatu eta euskara erdigunera ekartzeko 10 konpromiso zehatz adostu zituzten. Modu berean, familia eta erakunde publikoak ere interpelatu zituzten, euskararekiko harremana eskolara mugatu behar ez dela aldarrikatuta.



2026

Eskualdeko aniztasun linguistiko eta kulturala aitortzea xede, euskara hurbiltzeko poltsikoko hiztegitxoak garatu ditu Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak. Euskara-arabiera-amazig eta euskara-errumaniera-errusiera hiztegiei euskara-espainiera-portugalera hiztegia gehituko zaie aurki. Hain zuzen ere, kontseiluaren Euskara Zubi metodologia erreferentziazko bide-orria bilakatu da Araba mailan ere.

Eskualdeko aniztasun linguistiko eta kulturala



Babestutako edukia

Aiaraldeko euskararen eguna 2026

gure hizkuntza, gure bidea, gure eskualdea



Iker Santocildes Perez
Urduñako alkatea

Abenduaren 3an dugu Euskararen Eguna, gure erroak gogoratzeko eta etorkizunari begiratzeko aukera aparta. Gure hizkuntza ez da iraganeko oihartzun hutsa, herri baten bihotz-taupadak baizik. Mihitik mihira eta belaunaldiz belaunaldi, eman diezaiogun hauspoa geure hizkuntzari urteko egun guztietan.



Txutxi Ariznabarreta Zubero
Arrankudiaga-Zolloko alkatea

Euskararentzat ez da nahikoa aldeko mezu eta diskurtsoekin. Botere desberdinetatik jasotzen ari den oldarraldiaren aurrean, jauzi kualitatibo ausarta egin behar da ezinbestean: hizkuntza nazional izaera aitortu behar zaio, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Guztiok batera gure hizkuntzarentzat estatus berria aldarrikatzeko garaia da.



Eneritz Alonso Montaño
Okondoko alkateordea

Euskara hizkuntza bat baino askoz gehiago da: memoria, identitatea eta hurrengo belaunaldiei zaindu eta transmititu behar diegun ondarea da. Okondon hazten jarraitzea nahi dugu, gure kaleetan presente egotea eta gero eta jende gehiagok bere egitea. Hizkuntza bat erabiltzen denean bizi delako.

Gora Euskararen Eguna!



Aingeru Olaguenaga Iza
Orozkoko Euskara Zinegotzia

Euskararen alde. Ezer debalde. Indarra dugu, inoren aurka, ezeren kalte. Gara garenak, pena merezi dutenak. Legitimoak gure aldarrikapenak, ama hizkuntza loratzeko eginak, kabia bilatzeko finak. Mendetako nortasuna, egungo duintasuna.

Babestutako edukia





Ainize Gastaka Martinez
Laudioko alkatea

Ama Euskal Herriaz naiz naigabetua, uzterat doalakotz betikotz mundua», zioen Xalbadorrek.

Euskarak herri egiten gaitu. Zaindu, maitatu eta erabil dezagun, gure arteko aldeak gainditzuz eta etorkizuneko belaunaldiei bizirik eta indartsu uzteko konpromisoz. Euskaraz bizi, euskaraz eraiki. Euskararen Eguna egunero ospa dezagun.



Arkaitz San Jose Martinez
Artziniegako alkateordea

Euskal komunitate geroz eta zabalagoa dugu Artziniegan. Bide egokian gaudela uste dut, oraindik asko egiteko badugu ere. Norabide horretan, jarduera anitzagoez eta pertsona berriz elikatzen jarraitu behar dugu euskaldunon sarea. Sare eta espazio horiek euskaratik eta euskaraz bizi nahi duten guztientzako irekita daudela azpimarratu nahiko nuke.



Txerra Molinuevo Laña
Amurrioko alkatea

Euskara gure identitatearen, kulturaren eta Amurrio ulertzeko moduaren funtsezko zati bat da. Euskararen Nazioarteko Egun honetan, herritar guztiak animatu nahi ditut euskara bizi, erabili eta transmititzera, hitz bakoitzak gure hizkuntza bizirik mantentzeko eta bere etorkizuna eraikitzeko balio baitu.



Iñigo Pinedo Vadillo
Aiaraldeko Kuadrillako presidentea

Euskararen Eguna ospatzeko, Aiaraldean badugu zer aldarrikatu eta zer ospatu. Euskara gure eguneroko bizitzaren parte izatea nahi dugu, gure herrien arteko lotura eta etorkizunerako ondarea baita. Horretarako, guztion ekarpena beharrezkoa da: erabil dezagun, zaindu dezagun eta eman diezaiogun elkarrekin merezi duen lekua.



Pruden Otegi Etxebarria
Aiarako alkatea

Euskara ez dakienak, euskaldunei euskaraz egiten utz diezaiela. Euskaraz ez dakienak, "Egun on" esaten ikas dezala. Gutxi dakienak, dakiena erabil dezala. Jendaurrean lan egiten duenak, itzultzaileak erabil ditzala paisaia linguistikoa aldatzeko. Euskaraz egiten eroso sentitzen ez denak, erabil dezala erosoago egoteko bide bakarra delako. Dakienak, erabil dezala. Euskara delako euskaldun egiten gaituena.

Euskararen bidetik
Aiaraldeari itzulia

Arakaldo 2022



Udaberriko hitzorduaren ostean, Arakaldon ospatu zuten Euskararen Nazioarteko Eguna, “Euskararen alde aktibatzeko” aldarria zabalduz. Memealdia egin zuten estreinakoz edizio honetan.



Orozko 2019

Aiaraldeko bizilagunek jolas artean osaptu zuten Orozkon Euskararen Nazioarteko Egun Bateratua.





Arrankudiaga-Zollo 2024



Egun osoko egitarauarekin ospatu zuten Euskararen Egun Bateratua Arrankudiaga-Zollon. Ikastetxeek berebiziko protagonismoa izan zuten euskararen aldeko aho-korapiloak plazaratuta.

Aiara 20

COVID-19ak eragindako etena gaindituta 2022k udaberrian Luiaondon egin zuten bat Aiaraldeko euskaldunek, “Euskaraktibatu!” lemapean.



Artziniega 2023



Aiaraldeko euskaltzaleentzako “arnasteko, batzeko, indartzeko eta ospatzeko” elkargunea izan zen Artziniega 2023ko Euskararen Nazioarteko Egunean. Euskararen aurkako oldarraldi judizialak markatutako ikasturtearen balantzea egiteko baliatu zuten hiztoruda.





2026 2018

Laudio

Euskaraldiaren lehen edizioa ospakizun erraldoi batekin amaitu zuten Laudion. Aiaraldeko udalerri guztietako Ahobizi eta Belarriprestek euskara egunero erabiltzeko hautua aldarrikatu zuten Herriko Plazan egindako ekitaldi nagusian.



2016

Amurrio



"Aiaraldea euskaldun!" lemapean txiki geratu zen Amurrio, Aiaraldeko Eusklagintza Kontseiluak antolaturiko lehenengo Euskararen Egun Bateratuan. Aterki eta paperezko erroten bidez euskararekiko konpromiso eta maitasuna adierazi zuten herritarrek.



2017

Urduña



Hilabete lehenago abian jarritako Aiaraldea Ahobizi eta Belarriprest dinamikaren amaiera festa ospatu zuten Urduñan. 30 egunez eskualdeko bederatzi udalerrietako 4.500 lagunek euskaraz bizitzeko hautu kolektiboa egin zuten.

2025

Okondo





Okondon ospatutako Euskararen Egunak eman zion itxiera eskualdeko udalerri guztiak zeharkatu dituen zikloari. "Piztu Euskara!" lemapean ehunka euskaltzale bertaratu ziren ospakizun egunera.

Babestutako edukia

Indarkeria matxistaren aurrean, hamaika deialdi Aiaraldean



Azaroak 19

URDUÑA
18:30 Museoa
"Bufón" liburuaren aurkezpena.

LAUDIO
18:30 Kasinoa
Virginia Imaz-en "In crescendo" clown-parodia.

Azaroak 20

ARTZINIEGA
17:30 Kultur Etxea
Querer miniserie! Zine-foruma (Wayra elkartea).

LAUDIO
18:30 Kasinoa
Ana Bernal-Triviñoren Kazetaritza eta indarkeria matxista hitzaldia.

AIARA
19:00 Udala
"Txapeldun bihotza" Ainhoa Ruiz-en bakarrizketa.

Azaroak 21

LAUDIO
17:00-19:00 Aldai plaza
Indarkeria matxistaren aurkako ginkana herritarra (Wayra elkartea).

OROZKO
19:00 Donibane aretoa
"Cara de bicicleta" dokumentala (Itxiar Zorita zuzendariarekin).

AMURRIO
Antzokia
"No solo duelen los golpes" Pamela Palencianoren bakarrizketa.

Azaroak 22

ARTZINIEGA
17:30 Kultur Etxea
Querer miniserie! Zineforuma (Wayra elkartea).

OKONDO
18:00 Kultur Etxea
"Puto amor. Dora Galvez" antzezlan komikoa.

AIARA
11:00 Arespalditzako ludoteka
"Maripiren desagerpena" Scape Room (8-12 urteko gazteentzat eta familientzat).

Azaroak 23

OKONDO
17:00 Kultur Etxea
"Sorginkeriak eta sarea" (Kristina Izagirre, Kukulu Atelier).

URDUÑA
17:30 Alondegia
"La Trenza" zineforuma (Antolatzailea: Loraldi).

ARTZINIEGA
17:30 Kultur Etxea
Koro feminista (Irune Herrero, Emakumusic).

LAUDIO
18:00 Aretako Kultura Etxea
Taldeko Fanzine tailerra.

Azaroak 25

LAUDIO
12:00 Herriko Plaza
Adierazpen instituzionalaren irakurketa.
18:00 Altamira Plaza
Aretako Emakumeak elkarteak antolatutako kontzentrazioa.
19:00 Herriko Plaza
Elkarretaratzea (Solastiar eta Etawasolek antolatuta).
Jarraian
Amagoiaren lorategiaren bisita.

URDUÑA
17:00 Alondegia
"Osasun mentala eta estereotipoak".
19:00 Foru Plaza
Kontzentrazioa.

AIARA
17:30 Feriala
Kontzentrazioa.

ARTZINIEGA
18:00 Frontoia
Kontzentrazioa.

OKONDO
18:00 Frontoia
Kontzentrazioa.

AMURRIO
18:30 Juan Urrutia Plaza
Emanaldia (Kuskua elkartea).
19:00 Juan Urrutia Plazatik
Mobilizazioa.

OROZKO
19:00 Zubiaur Plaza
Elkarretaratzea (Mariren Kolektiboak antolatuta).

Azaroak 26

URDUÑA
18:00 Alondegia
"Feminísimas" bakarrizketa.

AMURRIO
18:00 Nagusi
"Indarkeria matxista pertsona nagusiengan" (Izaskun Zarrandikoetxearen eskutik).

Azaroak 27

ARTZINIEGA
17:30 Kultur Etxea
Querer miniserie! Zine-foruma (Wayra elkartea).

LAUDIO
18:00 Aretako Kultur Etxea
Familientzako collage tailerra.
18:30 Kasinoa
"Del amor al NoPor" antzerkia (Yaiza Ramos La Azabache Producciones).

Azaroak 28

LAUDIO
10:00-14:00 Lezeaga aretoa
"Correspondencia y cartas de amor" tailerra (Sara Torres-en eskutik).
17:00 1.saioa / 18:30 2.saioa Kasinoa
"Desde el más allá al más acá" antzerkia (antolatzailea: Solastiar).

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Artziniega
Iragana eta etorkizuna

Arrankudiaga-Zollo
Udala

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

OKONDO
UDALA - AYUNTAMIENTO

Orozkoko
Udala

URDUÑA
ORDUÑA

Babestutako edukia

AZAROAK
25
Emakumeen kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna.

SATEVI
900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN, ZURE LEKUAK AXOLA DU.

araba álava foru aldundia diputación foral
Bizkaia foru aldundia diputación foral
GIPUZKOA Foru Aldundia · Diputación Foral
EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea Asociación de Municipios Vascos
EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea Instituto Vasco de la Mujer
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Iritzia



Nork okupatzen du?

GARAZI BELDARRAIN

Okupazioaz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara benetan? Zein okupaziok eragiten digu haserrea?

Badirudi bakar batek molestatzen gaituela: ezer ez duenaren okupazioak. Langile-klase pobretuarenak. Alokairu neurrigabea ordaindu ezinik, bizitzeko hutsik dagoen etxebizitza batean sartzen denarenak. Bizirauteko okupazioak.

Baina inork ez du hitz egiten beste okupazio askoz handiago, sakonago eta bortitzagoez: arpilaketaren eta sarraskiaren okupazioaz.

Europako potentziek lurralde osoak bereganatu zituzten, haien baliabideak ustiatu eta ekonomia-sistemak antolatu zituzten Iparralde Globala aberasteko, Hegoaldearen kontura. Ez da gehiegi hitz egiten ezta gaur egun dinamika horien forma berrien bidez duten jarraipenaz: baliabide naturalen neurrigabeko erauzketa, pertsonen esplotazioa, lurraldeen arpilaketa eta interes ekonomiko eta geopolitikoek elikatutako gerrak.

Logika hori bera ikusten dugu milioidunek eta korporazio handiek lur-eremu erraldoiak erosten dituztenean datu-zentroak eraikitzeko. Azpiegitura horiek energia eta ur kantitate izugarriak kontsumitzen dituzte, herrialde osoen kontsumo-mailara iristeraino. Lurrak ere erosten dituzte luxuzko urbanizazioak, proiektu esklusiboak eta inbertsio espekulatiboak egiteko, lurra eta haren baliabide naturalak gutxi batzuen zerbitzura dauden negozio bihurtuz.

Eskala txikiagoan, logika hori bera errepikatzen da gure herri eta auzoetan: lurraldea bereganatzea gutxi batzuen mesedetan, kontuan izan gabe bertan bizi direnengan izango dituen ondorioak. Horrek, eskala handian, herrien eta lurraldeen esplotazioa dakar, eta hori hemen espekulazioan, bizilagunen kanporatzean, elkarbizitzaren higatzean eta nortasunaren galeran islatzen da. Lurraldeak negozio bihurtzen dira, eta komunitateak dira prezioa ordaintzen dutenak.

Baina gure telebistetan ez dugu horretaz ohartarazten gaituen iragarkirik ikusten. Ez dugu higiezinen espekulazioaren arriskuez ohartarazten gaituen kanpainarik ikusten, ezta aberatsenek soilik gozatzera bideratutako proiektu esklusiboak garatzeko lurrak erosteak dakartzan arriskuei buruzkorik ere. Ezta lurraldeak behin eta berriz bonbardatzearen arriskuez ohartarazten gaituen kanpainarik ere, ekosistemak eta herritarrak suntsitzen dituztenean.

Ikusten duguna, ordea, tertulianoen eta komunikabideen etengabeko bonbardaketa da. Beldurra elikatzen dute, arriskua beste bat dela esanez: zu bezain pobrea den norbait zure etxean sartzea. Securitas Direct bezalako enpresek babestutako diskurtsoa da, beldur hori negozio bihurtzen baitute, eta etsaia behean dagoena dela esaten digute. Sistemarentzat benetan erabilgarria den logika.

Beraz... zergatik seinalatzen dugu bizirik irauteko etxebizitza bat okupatzen duen pertsona, eta apenas jartzen ditugu zalantzan besteen kontura aberasteko lurraldeak eta baliabideak arpilatzen dituztenak?

Zein okupaziok eragiten digu benetan haserrea? Ezer ez duenarenak ala dena nahi duenarenak?



A29, demokrazia alerta gorrian?

EDER SANCHEZ

Perspektibak agintzen du garai hauetan eta erabateko esfortzua suposatzen du askorentzat gure lurralde historikoetatik at gertatzen ari den faxismoaren etorrerarekin. Gurean, asintomatikoa ematen badu ere (aipatzearren, 2024ko hauteskundeetan VOXek eserleku bakar bat lortu zuela ikusita, Araban, eta Ertzaintzak 236 gorroto gertaera erregistratu zituen, 2023an baino % 16 gutxiago) datuak azpijoko maltzur batean dabiltzatelakoan nago.

Hasteko, joera. Ikerfelek Eusko Jaurlaritzarentzat egin duen Soziometroaren arabera (2026ko urria), Voxek % 4,8 lortuko luke Euskadin azaroaren 29ko hauteskundeetan, hau da, hogeitik bat inguru, eta % 4,7 Araban. Eserlekurik ez luke lortuko, baina jada ez da marjinala.

Bigarrenik, gertaera horien izaera: % 62 arrazistak edo xenofoboak izan ziren. Gainera, erregistratutakoa izotzmendiaren punta izan daiteke eta biktimak, gehienetan, etorkinak dira, boto-eskubiderik gabeko pertsonak eta askotan ez dira salatzen, ikusezin dena neurtu ezina izanik.

Hirugarrenik, memoria. Euskal gizarteak ondo daki zer den indarkeria politikoa, jazarpen eta errepresioa. Memoriak talka egin dezake bere falta berarekin alegia, bermerik suposatzen ez duen konfiantza eremua mehatxatuz.

Etxebizitzak egun kezka nagusia izanik eta honek sortzen duen ezinegonari erantzun belarrigoxuak ematen ez zaizkionean, beti dago baten bat erantzun errazak saltzeko prest dagoena eta bestelako elementuak nahasteko abilezia duena faxismoaren errezetak prestatzeko.

Laugarrenik, hitzen balioa. «Otsoa dator, otsoa dator» garrasi da azken bi hamarkadetan, eta «faxista» deitu zaio iritzi desberdina duen edonori era oso merkean. Nire aburu xumean, horrek bidea erraztu die benetako faxistei eta otsoa gure artean dugu dagoeneko, baina izendapena zehaztasunez ematen ez badiogu, otsoaren mesedean elkartu beharrean, banatu eta ahulagoak bihurtu gintezke.

Arriskua ez datza bihar Parlamentua hartzean, gorrotoaren eta deshumanizazioaren hizkera ohikotzean baizik. Aurrea hartzea merkeagoa da berandu iristea baino: hezkuntzan, etorkinen babesean, etxebizitzan, politikari eta hedabideen hizkeran... eta bozkan.

Azaroaren 29an Gorte Orokorretarako hauteskundeak dira. Demokrata orori zuzentzen natzaio: bozkatu! Abstentziotik ateratzen dugun bozka bakoitzak, justizia sozialaren bidean jarraitzeak suposatu dezake, martxa dena dela... ez gaitezen damutu gero!

“Demokrata orori zuzentzen natzaio: bozkatu! Abstentziotik ateratzen dugun bozka bakoitzak, justizia sozialaren bidean jarraitzeak suposatu dezake, martxa dena dela... ez gaitezen damutu gero!”



Eskumenak bai, baina zertarako?

JUAN CARLOS RUIZ

Azkeneko hamarkadetan, Euskadin gure komunitate politiko eta instituzionalizatua, bere eskumenak zabaltzen eta sakontzen joan da etenik gabe. Zertan nabaritu dugu hiritar arruntak prozesu guzti hori, saiatuko naiz aztertzen, ahal den neurrian.

Lehenengo eta oinarrizko printzipio bezala, niri eta askorentzat, hauek izan beharko litzateke helburuak eta jomugak: Gizartearen ongizatea bultzatu. Hezkuntzaren maila igo. Segurtasuna bermatu, delinkuentzia jaisten. Osakidetzaren funtzionamendua eraginkorragoaren bitartez, pertsonen osasuna hobetu. Azpiegiturak eraiki eta daudenak mantendu.

Herritaren multzo haundi baten zalantza izaten da, boterea maila desberdinetan eduki dutenak (Udaletan, Diputazioetan eta Eusko Jaurlaritzan), gure Komunitatean, alderdi abertzaleak izan dira. Zeintzuk izan dira bere helburuak, lehenago aipatutakoak edo bere alderdien intereseren arabera jarri dute "Eraikuntza Nazionala" zeregin nagusi bezala.

Bagoaz arloz arlo azterketa bat eginez nahiz eta gainetik izan, artikuluxka honetan ezin da sakontzen behar den bezala.

Hezkuntza alorretik hasten, ni maisu ohia izanik, 40 urte Hezkuntza Publikoan lan egiten eta hiru Lurraldeetan (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban) ibilia, nahiko eskarmentua ematen dit alor hau nahiko ondo ezagutzeko.

"Pisako" emaitza kaskarrak edo negargarriak direla eta, mundu guztia ibili da eta batez ere komunikabideetan, beren iritzia ematen, eta arrazoiak bilatzen. Faktore desberdinak aipatzen, errudun bezala. Egia da faktore anitzak sartzen direla, baina nik hemen, bi aipatuko nituzke, eta bi hauek "TABU" izaten dira gure artean.

Lehenengo faktorea: irakaslearen autoritatearen falta

Lehenengoa, irakaslearen autoritatearen falta eskola barruan. Autoritatea balore bezala maldan behera dago gure gizartean eta hori nabaritzen da Hezkuntzan. Balore hori lotu izan da diktadurarekin eta guztiz kontrakoa da. Balore hori gabe ez dago kalitatezko hezkuntzarik. Irakaslearen autoritatearen kontra indar desberdinak eragiten dira. Hezkuntza Departamentuak ez dauka konfidantzarik irakasleengan, eta zama burokratiko pila bat botatzen du bere bizkarrean, inolako eraginik gabe ikasgela barruan eragiten. Guraso askok arazo pedagogikoetan sartzen dira askotan, maisu eta anderenoen iritzien kontra. Guzti horren aurrean irakaslea isolaturik eta defentsarik gabe ikusten du bere burua, eta horrelako baldintzapean eramaten du praktika pedagogikoa, askotan bere pentsamoldearen kontra. Praktika honetan adibide garbiena izaten da, nola ikasleek gainditzen dituzten mailak fundamenturik gabe. Unibertsitatera ailegatzen dira oinarrizko testuak interpretatzen jakin gabe. [...]

Artikulu osoa Aiaraldea.eus atarian irakurri daiteke.



Polarizazioa hauteskunde kanpaina garaian

OSCAR MUÑOZ 'JOKO'

"Trump, Bolsonaro, Orban, Milei... ikusi dugu zer gertatzen den ultraeskuinak beste herrialde batzuetan boterea ukitzen duenean"

[...]

Polarizazio politikoak gorakada nabarmena izan du azken urteotan gizartean. Definizioz, iritzi publikoa bi mutur erabat kontrajarritan banatzen duen fenomeno politikoaz ari gara.

Gaztea nintzenean (Jesus...soilik 38 urte dauzkat, ze demontre ari naiz esaten?) gogoratzen dut nola iristen ziren alderdien arteko estatu-akordioak. (...)

Baina urte batzuk daramatzagu ikusten oposizioan dauden alderdiek kontrakoa besterik ez dutela bilatzen.

[...]

Nik badut, noski, egoera horren guztiaren errudun argi bat. Faxismoaren gorakada da.

Ezkerrak eta eskuineko zenbait alderdik hala nola EAJk, VOXekin hitzartzera eramango dituen edozein akordioren aurrean, gazteleraz "cordon sanitario" deritzon logiko bat egiten diote. Ez dute faxistekin negoziatzen eta argi daukate. Giza balioak eta oinarrizko printzipioak politikan ez dira negoziazio bide bat alderdi horientzat.

Bestalde, eskuineko alderdi batzuek ez zaie alkandora zimurtzen alderdi faxistek bozkatzen duten berbera bozkatzen baldin badute. Gainera, ez zaie aurpegia gorritzen haiekin akordioak lortzen badute. Eta azkoz larriagoa dena, ultraeskuineko kideekin gobernua osatzeko akordioak adostu. Horrelako alderdientzat faxismoa normalizatzea botererako beste bide bat da eta balio die.

Kontua da Espainiako estatuko panorama politikoan ultraeskuina agertzeak ia automatikoki handitu dituela ezkerreko eta eskuineko alderdien arteko distantziak, baina hori gutxi balitz, haien formak daude. Irainak legebiltzarrean eta parlamentutik kanpo, mitinetan. Gezurrak eta buloak aurkari politikoarekiko gorrotoa sortzeko [...]

Zorionez, kasu hau gehiengoa da espainiar estatuan, baina Euskal Herrian gauzak ez dira modu berean egiten.

Legebiltzarrean boto gehien lortu dituzten bi alderdiek komunikazio ona dute euren artean, eta akordioak lortzeko borondate politikoa mahai gainean dago. [...]

Baina gainera, Euskal Herrian dagoen kultura antifaxistak eragotzi egin du ultraeskuinaren gorakada eta gure legebiltzarrean haserrealdi politikoa areagotzea. Eta hauxe, nire iritzia indartzen duen arrazoi bat da. Espainiar estatuan faxismoaren gorakada, artikulu honetan azaldu dudan bezala, da nire iritziz, polarizazio politikoaren gorakada azaltzen duen errudduna.

Trump, Bolsonaro, Orban, Milei...ikusi dugu zer gertatzen den ultraeskuinak beste herrialde batzuetan boterea ukitzen duenean. Eskubide sozialetan atzekarada bortitza eta nabarmena, baita errepresio eta zentsura garaia ere kasu askotan.

Azaroaren 29ko hauteskunde hauetan asko dago jokoan Espainiar estatuan. (...) Polarizazizoak ez zaitzala geldiarazi eta ez zaitzala etxean gerarazi, botoa ematea inoiz baino garrantzitsuagoa da jokoan dagoen guztiarekin.

Artikulu osoa Aiaraldea.eus atarian irakurri daiteke.

Elkarrizketa

“AUZOA BERPIZTEA IZAN DA HELBURUA, **EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN BIDEZ”**



Buti Buñuelos, Ainara Ibarrondo eta Iñaki Bande Koldo Zabala eta Lauri Sanjurjoren semea den Oier Velezekin. **Aiaraldea.eus**

AZAROAREN 14AN AMAITU ZEN UGARTEKO AUZOLANA ELKARTEAREN JARDUNA, AGUR FESTAREKIN. TALDEKO KIDEAK DIREN **BUTI BAÑUELOS, IÑAKI BANDE** eta **AINARA IBARRONDO**rekin MINTZATU GARA 26 URTETAN EGINIKO IBILBIDEAREN INGURUAN.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

25 urte bete zituen Ugarteko Auzolan elkarteak iaz, eta larunbat amaitutzat eman zenuten ibilbidea. Zer dela eta?

Ainara Ibarrondo: Jende gutxi geratzen ginen. Asko falta dira, batzuk hil direlako, beste batzuk adinagatik gutxi parte hartzen dutelako... ikusi genuen horrela ezin ginela ibili. Bagenuen diru kopuru bat gordeta eta erabaki genuen festa bat egitea agur moduan, eta omenaldi bat hiru sortzaileei, jada hil direnak.

Buti Bañuelos: Zazpi kide hasi ginen. Beno, zazpi terdi. Joseba Velez zegoen taldean baina kartzelan zegoen une horretan, eta bere ordez Lauri Sanjurjo etorri zen eta taldeko burua bilakatu zen. Bera jada ez dago gurekin.

A.I.: Txema Abin ez dago, Iñaki Gallego ere aurten zendu da... horiek izan ziren sortzaileak, eta eurak omenduko ditugu.

Elkartearen izenak berak laburbiltzen du bere funtsa: Auzolana. Izena edo izana, zer etorri zen lehenago?

B.B.: Biak batera. Txemak jarri zuen izena, eta horrela geratu zen. Kultura eta euskara sustatzea zen asmoa, Ugarten ez zegoena.

Iñaki Bande: Euskal kultura eta euskara sustatzea zen helburua, horretan eragitea.

Nola egin zenuten hori?

B.B.: Uste dut antolatu genuen lehen ekintza Olentzeroren ikazkinaren bisita izan zela. Ikastetxeetan bai, baina herrian ez zen halakorik antolatzen. Ez dakit nola sortu zen ideia, baina horrekin hasi ginen. Mendi ibilaldia ere antolatzen genuen urtero. Jaien barruan, aldiz, txosna jartzen genuen eta hainbat jarduera bultzatzen genituen.

Nola baloratzen duzue eginiko ibilbidea?

B.B.: Jende pilo inplikatzen zen jardueretan. Ikazkina antolatzen genuenean, adibidez, gure atzetik jende pilo zegoen gaztainak egiten, txokolatea prestatzen, opariak banatzen... jendeak pilo laguntzen zuen. Mendi ibilaldian bazkari bat antolatzen genuen. Denboraren poderioz egiteari utzi zitzaion, baina gero berreskuratu genuen.

> “Desagertutako pertsonen auzia **edozein gatazka armaturen drama nagusia da”**

A.I.: Ia bagara betiko hamarrak, lehen asko ziren... betikoak gara antolakuntzan gabiltzanak, lagunak.

I.B.: Jendeak asko lagundu gaitu, hasieran batez ere. Jendea nekatzen joan da, gu bezala (barreak). Lehen urteetan dena zihoan oso ondo.

Asko aldatu da Ugarte 25 urtetan?

B.B.: Pilo. Lehen bost taberna zeuden Goienurin, orain ez dago bat ere ez. Lehen bazegoen kutxa, bi supermerkatu, arraindegia orain ireki dute berriro... asko aldatu da auzoa.

I.B.: Gure asmoa zen auzoari bizitza ematea euskararen eta euskal kulturaren bitartez.

A.I.: Erosketa guztiak egiten genituen auzoan.

I.B.: Auzoa asko hazi zen hasieran baina gero itzaltzen joan zen. Orduan, asmoa zen berriro berpiztea: jendea taberna eta dendetara joatea... auzoa ikustaraztea, euskararen eta euskal kulturaren bidez. Ahal duguna egin dugu.

Zure tonuagatik sumatzen dut balorazio gazi-gozoa egiten duzuela.

B.B.: Balorazioa ona edo oso ona da. Baina egon dira urte batzuk zeintzuetan lan guztia gutxi batzuen esku egon den.

I.B.: Gauzak aurrera ateratzeko txosna jarri dugu jaietan eta elkarlanean aritu gara auzoan egon diren jai batzorde ezberdinekin. Gu saiatzen ginen gure ekintzak sartzen, herri kirolak kasu. Egon dira urteak zeintzuetan jaietan ez den euskarazko talderik egon, edo ipuin-kontalari bat zetorren eta gazteleraz zen... Horretan eragiten saiatu gara.

Txosna kudeatzeak lan handia dakar, jendeak lagundu arren.

B.B.: Txandak egitea da errazena, atzetik dagoen lana da zailena.

I.B.: Horrek erre gaitu apur bat. Horrez gain, badaude jarduera batzuk guk antolatzeari utzi diogunak, baina jarraitzen direnak egiten, beste pertsona batzuen eskutik. Gauzak antzera egiten jarraituko da hemendik aurrera ere.

Hori galdetu nahi nizuen: Zer gertatuko da zuek antolatutako ekintzekin? Badago belaunaldi aldaketa auzoan?

A.I.: Jai Batzordekoei esan diegu laguntza behar duten horretan gurekin kontatu dezaketela. Aurten ez dugu txosnarik jarri baina lagundu egin dugu. Jarraitzen dugu lanean, baina atzetik, jende berriari eman behar diogu paso.

B.B.: Badago beste talde bat, Ugarte Bizirik izenekoa. Putxerak egongo ziren 14an, eta talde horrek antolatuko zituen, Kirikinorekin batera. Amaitu baino lehen, Ussia anai-arrebak ere aipatu nahi ditugu, beti egon direlako hor: ikazkinan, mendi martxan, txosnetan... egon behar zen toki guztietan.







PODCAST BAT EGIN NAHI DUZU?
ZURE AHOTSA ENTZUN NAHI DUGU!
Izen-emateak eta info+
labur.eus/podcastirekia

Bidali zure ideia edo proposamena:
688 84 81 52 telefonora edo erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera.
Ate irekiak astelehenetan
Abenduak 7, 14 eta 21
18:30ean Faktorian
AIARALDEA - KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus

Hurrengo geltokia→

Santi Yaniz



#14

Argazki bakoitzaren atzean begirada berezi bat eta istorio bat daude. Horren adibide garbia da Santi Yaniz Aramendia, Laudioko argazkilari eta kazetaria. Urte luzez, Euskal Herriko paisaiak, natura, arkitektura eta herrietako bizimodua islatu ditu bere kameraren bidez, eta hogei liburu baino gehiago argitaratu ditu. Bere ibilbidean, mendiko kazetaritzak ere garrantzi handia izan du, 1997an Bizkaia-Everest espedizioan parte hartu baitzuen argazki- kazetari gisa. ETBko *La mirada mágica* saioari esker, Euskal Herriko hainbat txoko ezagutzeko aukera ere eman zigun. Baina argazkien eta bidaien atzean dagoen pertsona ezagutzea falta zaigu oraindik. Bere bizipenak, hastapenak eta urte hauetan guztietan ikasitakoa gertutik ezagutzeko eseri da gurekin.

Santi Yanizen gogokoenak

→ *Liburu bat?*
Sebastião Salgadoren liburua, naturako paisaiak biltzen dituena

→ *Abesti bat?*
Isiltasuna

→ *Film bat?*
The Brutalist

→ *Aiaraldeko txoko bat?*
Tologorri mendia

→ *Kultur espazio bat?*
Donostiko Tabakalera

→ *Errezeta bat?*
Ensaladilla errusiarra eta onddoak

→ *Superbotere bat?*
Hegan egin

→ *Bideo podcasta osorik gure Youtube kanalean.*

“Argazki on bat ateratzeko, ezinbestekoa da norberaren begirada propioa izatea. Begirada hori, ordea, landu eta garatu egin behar da; izan ere, prozesu luzea da, argazkia atera aurretik gelditzea, behatzea eta pentsatzea eskatzen duena. Hala ere, teknika ere funtsezkoa da, biak uztartzeak ahalbidetzen baitu argazki on bat sortzea”

“Une hartatik aurrera, bizitza beste erritmo batean bizitzen ikasi nuen, **segundo bakoitzari garrantzia emanez”**

Piszifaktoria Ideien Laborategiak beka berria lortu du eta heriotza eta memoriari buruz lanean ari da



Hegan egiteko gogoa da Bilboko Alondegian. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Piszifaktoria Ideian Laborategiak proiektu berria dauka esku artean. Izan ere, Errenteriako Udaleko Legamia beka lortu dute eta heriotzari eta memoriari buruzko entsegua egiteari ekin diote, betiere, bizitza ospatzeko.

Gauzak horrela, astebete igaro dute Gipuzkoako udalerrian hango herritarrekin ikertzen eta laster, iragarri dutenez, beste astebetez egongo dira.

Kasualitatea, edo ez, hausnarketa berria hasi du taldeak bere kide bat zendu eta gero. Izan ere, Igor Arzuaga Gumuzio urriaren 20an hil zen.

Mikel Ayllonek azpimarratu duenez, Arzuaga ez zen laguntzailea, taldeko kidea baizik, eta zegokizkion ardurak betetzen zituen.

Horren adibide dira igande honetan eta hurrengo ostegunean izango dituzten hitzorduak. Bietan taularatuko dute Hegan egiteko gogoa da antzezlana. Sormen lan horrekin ibilbide luzea egin dute jadanik eta aurten, esaterako, Bilboko Alondegira eraman zuten.

Piezak eskizofrenia du ardatz eta modu berezian partekatzen dute publikoarekin, euren begiak estalita. Modu horretan, esperientzia sentsoriala baliatzen dute istorioa kontatzeko.

Horrela, igandean Donostiako Tabakaleran izango dira, Labo XL jaialdian, 12:30 eta 13:30ean. Ostegunean, aldiz, Azpeitiko Soreasu Antzokian, Euskal Antzerki Topaketetan, 19:30ean. Lehen emanaldiko sarrerak hemen eskura daude, eta bigarrenekoa, aldiz, hemen.

Saio guztietan entzungo da Igor Arzuaga Gumuziok propio sortutako abestia eta Iholdi Beristainek egiten duen bertsioa.



Kaosaren barruan esanahi bila murgildu dira Ziztada & Rlantz estudioko laugarren lan luzean



Zitzada, Ralntz eta Komadük *Pareidolia* diskoa aurkeztu berri dute. **Ziztada&Rlantz**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Reggae, dancehall, dubstep, steppa eta drum & bass doinuak uztartu dituzte, inguruan bizi duten horri abesteko

Reggae, dancehall, dubstep, steppa eta drum & bass doinuak aldarri, estudioko laugarren lan luzea kaleratu berri du Ziztada & Rlantz bikoteak eta Komadü saxoak: *Pareidolia*. Orain arteko bidetik jarraitu, eta "euskarazko letra sozialak subgrabe indartsuekin" elkartu dituzte beste behin ere proiektu berri honetan.

Besteak beste, etxebizitzaren problematikari, sistemaren presioari, uniformetasunari, purismoari, gorrotoari edota askatasunari abesten diote laugarren disko honetan. "Gure inguruan bizi dugunari buruz hitz egiten dugu", zehaztu du taldeak diskoaren aurkezpenarekin batera; "gure gorputzaz, gure identitateaz eta geure bidea egiteko eskubideaz ere bai", gaineratu dute.

"Kaosaren barruan esanahia bilatzea", erronka hori jarri diote beren buruari Zitada & Rlantzek. Pareidolia joera psikologikoan aurkitu dute horretarako bidea, eta horrela izendatu dute diskoa. "Gizakiok daukagun joera psikologikoa da Pareidolia, non irudi, forma edo soinu esanguratsuak (batez ere aurpegiak) antzematen ditugun ausazkoak diren estimuluen aurrean” eta disko honetan ere, agian espero ez duzun zerbait entzungo duzu", azaldu dute dute izenaren nondik norakoetan sakontzerakoan.

"Dantza aldarri bihurtzen da, festa erresistentzia eta erritmoa elkarrekin pentsatzeko eta askatzeko leku. Azken batean, ez dugu munduak eman digun forma onartu nahi: gurea bilatu, apurtu eta berreraiki nahi dugu!", aldarrikatu dute.

Hamar abestiz osatutako lana ondu dute, taldearen ohiko doinu eklektikoari helduta; reggae ardatz bestelako estiloekin esperimentatzeari uko egin gabe. Dagoeneko entzungai dago diskoa, ohiko plataformetan.

2017an sortu zuten proiektua Erlantz Serrano amurrioarrak eta Irune Elgezabal bilbotarrak. Ordutik hona ibilbide oparoa egin du bikoteak, reggae musikaren ertz desberdinak arakatuz. Azken urteetan Iñigo Lopez de Sosoaga Komadü saxofoi jolearekin batu dituzte indarrak, Ziztada & Rlantzen musikari alderdi are melodikoagoa gaineratuz. Argitaratu berri duten disko honekin lau dira taldeak plazaratutako estudioko lan luzeak: *Egun Hotzak* (2018), *Azken Argiak* (2020), *KSMS* (2021) eta *Pareidolia* (2026). Hainbat dira ere argitaratutako singleak; *Lorearen Arantzak* edo *Zeren Zain*, besteak beste.

Kirola

ALPINISMOA

Patagonian bildutako irakaspenak eta abenturak pantaila handira ekarri ditu Tasio Martin alpinista gazteak



Tasio Martin eta Rafa Gomez Torres del Paineko zeharkaldi betean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Patagoniako mendiei lotuta igaro ditu Tasio Martin alpinista gazteak azken hiru urteak. Kointzidentzia askoren baturak bultzatuta, balentria ugari kateatu ditu Hego Amerikako granitoetan. Orain dokumental batean bildu ditu esperientzia eta irakaspen horiek guztiak: Coincidencias Patagónicas.

Torres del Paine eta Fitz Roy

Azken denboraldian gauzatutako bi proiektu ikusgarrienek eman diote Martini ikus-entzunezkoan murgiltzeko aitzakia. “Oso denboraldi berezia izan da honako hau Patagonian. Imajinaezinak ziren bi ekintza egin ditu”, azaldu dio Urduñako alpinistak Aiaraldea Komunikabideari. Torres del Paineko zeharkaldia osatzea eta Fitz Roy mendiko ekialdeko pilarea eskalatzea izan dira bi jarduera horiek, biak 2026ko otsaila eta martxoa bitartean burutuak.

Rafa Gomezekin batera osatu zuen Martinek Paineko zeharkaldia. Sean Villanueva Belgikako alpinistak 2024an irekitako bidea jarraitu zuten. Haizeak eta meteorologia aldakorrak baldintzatuta, lau egun igaro zituzten horma bertikaletan gora eta behera, Patagoniako siluetarik ezagunena marraztuz.

Hilabete beranduago, Sean Villanueva bera izan zuen sokalagun Tasio Martinek, Fitz Roy mendiko ekialdeko pilareko eskaladan. Martinentzat “sinestezina” izan da Villanuevarekin bat egin izana. 2022an Piolet d’Or sari entzutetsua irabazi zuen Villanuevak, Chaltén mendigunean bakardadean egindako zeharkaldiarengatik. “Seanekin bat egitea oso berezia izan da. Asko miresten dudan alpinista da, nire idoloa izan da denbora luzez. Halako batean elkar ezagutzeko aukera izan genuen eta lagun minak egin gara, elkarrekin eskalatzeraino”, azaldu du Martinek.

1976an Ragni di Lecco taldeko alpinistek ireki zuten bidetik eskalatu zuten Fitz Roy edo Cerro Chaltén. Mende erdian behin bakarrik errepikatutako bidea, 2011n eta Sean Villanuevaren eskutik, hain zuzen ere. Martin-Villanueva bikoteak apustua igo eta librean eskalatu zuen 1.200 metroko hormatzarra. “Hiru egun eman genituen hamaketan eskegita. Luze guztiak liberatu eta librean eskalatu genuen bide guztia. Sinestezina izan zen”, azaldu dio urduñarrak Aiaraldea Komunikabideari.

Pantaila handira

Aipatutako bi esperientzia horiek piztu zioten pelikula bat egiteko sugarra Tasio Martini. “Bi aktibitate horietara nola iritsi nintzen kontatzeko gogoa nuen. Guztira hiru urte daramatzat Patagoniara joaten, eta hiru urte horietan hamaika kontu bizi izan ditut, abentura pilo, esperientzia asko, asko ikasi dut...”. Izan ere, balentriaz betetako denboraldiak igaro ditu urduñarrak bertan. 2024an, esaterako, Cerro Torre Argentina eta Txile arteko mendi ezaguna eskalatu zuen Filo Sureste-ko bide enblematikotik.

“Oso leku berezia da Patagonia. Bertako klimatologia, baldintzak, logistika...”, dio Martinek eta hori islatu nahi izan du dokumentalean.

ATLETISMOA

Atletismoak hitzordu berria izan du Laudion



Adin eta maila guztietako korrikalariak bildu ziren. **Aiaraldea.eus**

Testua
Garazi Cuadra Alvarez

Ibar Krosaren edizio berria antolatu zuen azaroaren 15ean Laudioko Atletismo Klubak Ellakuriko igerilekuetako zelaietan. Urtero bezala, hainbat taldek hartu dute parte hitzorduan. Belar eta lur eremuak uztartu ditu zirkuituak, eta hiru itzuli ezberdin konbinatu ditu, kategoria bakoitzaren arabera: A (400 metro), B (670 metro) eta C (1.900 metro). 9:30ean hasi zen igandea, eta adin eta maila guztietako korrikalariak bertaratu ziren, honakoak besteak beste: haurren talde mistoak, kirolari paralinpikoak eta kadete mailako talde mistoak.

Hala ere, hitzordu berezia 10:40an izan zen: publiko guztiarentzat irekia zegoen herri lasterketa. Parte-hartzaileek 5 euroko ekarpena egin zuten, eta 4.870 metroko ibilbidea osatu behar izan zuten guztira.

Jardunaldia Laudioko Atletismo Klubak antolatu du, Laudioko Udalaren eta Euskadiko Atletismo Federazioaren laguntzarekin.



Babestutako edukia



Kutxabanken ere zu ● zeu izan.

Bizi euskaraz.

Kutxabankeko harremanetarako aukeratu euskara.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu.
Informa zaitez.

Euskaraz ;)
kutxabank

Kutxabanken Hizkuntza Politika
ikusi hemen: **www.kutxabank.eus**

Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077.
Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0
Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

Herriko plaza



Gexan
Zorionak Gaxen ,asko maite zaitugu!

Aita, ama eta Ixer



Apotxu
Zorionak Morteruko maîtreari! Animo lan fisikoarekin, eta edozein erabaki hartu aurretik irakurri ondo Power Pointa!

Txalet Zoriontsua

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Abenduaren 11n argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak


SUDOKU ERRAZA

			7		3			5
3	7			2				
9	5		8			3	7	2
			4					7
		3				9		
		2			6	8	5	
	3		6	8		7		1
	2		9		7		8	
			1		2	4		9


SUDOKU OSO ZAILA

			4					
8	6							
	3			2	5			
6							5	4
4		5		3		7	8	
	8			7		3	2	
			6				4	
2	5		9					
			8				3	

ANDERSEN MATEA




GREKO MATEA



Zuriek jokatzen dute eta mate egiten dute.
Amurrioko Xake Taldea

DENBORAPASEN SOLUZIOAK
Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: www.aiaraldea.eus/denborapasak

Kimu Kukuka



Herriko plaza

Erredakzio irekia

Komunikabide komunitarioa da gurea, dozenaka bizilagunen lan boluntarioari esker sortu eta aurrera ateratakoa, Aiaraldetik eta Aiaraldearentzat, euskaratik eta euskaraz. Animatu zu ere honen parte izatera!

AIARALDEA HEMEN HAMABOSTEKARIA, DENON ESKUTIK DENON ESKURA!





ERAKUSMAHAI BERRIAK!

Uste baino gertuago duzu Aiaraldea Hemen hamabostekariaren zenbaki bat. Eskualdean ekoiztutako euskara hutsezko aldizkari bakarra.

Aiaraldea Komunikabideak bikoiztu egin ditu udalerrietako banaketa puntuak. Erakusmahai berriak instalatu ditugu garraio publikoko geltokietan edota erreferentziazko kriolgune eta saltolkietan.

Halaber, hamabost egunean behin komertzioz komertzio banatzen ditugu aldizkariak, bai eta eskualdeko hezigune guztietan.

Aitzakiarik ez da, beraz, Aiaraldeko hamabostekaria hartu, irakurri eta elkarbanatzeko. Bilatu gertuen duzun banaketa puntua!

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus | agenda@aiaraldea.eus | erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus | 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54 | 688 84 81 52
Webgunea: www.aiaraldea.eus

Erredakzioa: Garazi Cuadra Alvarez, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares eta Aimar Gutierrez Bidarte.

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Aitziber Alava, Josu Zabala, Gemma Corbella, Endika Arribas, Gorka Chamorro, Ane Izquierdo, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Amets Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku, Iratxe Murias, Ander Huidobro.

LIZENTZIA: DOAN ETA LIBRE
Aiaraldea komunikabideko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, Aiaraldea Komunikabidea daramatzatenentzat soilik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniega Udala · Arrankudiaga-Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondo Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

araba álava foru aldundia diputación foral

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

JASO ZURE ETXEAN

MARI DOMINGIREN ESKUTITZ PERTSONALIZATUA GABON HAUETAN

Gutuna idatzi Mari Domingiri eta bueltan bere erantzuna eta oparitxo bereziak jaso! Postontzia azaroaren 13tik abenduaren 10era egongo da Faktorian.

MARI DOMINGI MAITEA,

NIRE IZENA _____ DA

ETA NIRE ETXEKO HELBIDEA (KALEA, ZB., HERRIA) _____

_____ DA

HURRENGOA KONTATU NAHIKO NIZUKE (URTEAN BIZITAKO PASARTE BAT, KONDAIRA BAT, BIZIPEN BAT, TXISTE BAT...):



Idatzi eta Faktoriako postontzian sartu

KO KO- RI KO FAK TO- RIA

1



Eskutitza idatzi

Kontatu Mari Domingiri hurrengo gauzak:

- Idazten duenaren **izena**
- Eskutitza jaso nahi duenaren **helbidea**
- Urtean zehar egindako zerbait **kontatu**

(idazten ez dakitenek argazki edo irudi baten bidez adierazi dezakete)


2



Postontzira bota

Faktorian Mari Domingiren txokoan aurkituko duzue. Abenduaren 10ean amaituko da gutunak entregatzeko epea.

3



Zure etxean jaso

Eskutitz pertsonalizatua etxean jaso oparitxo berezi eta guzti!

Oharrak:

Mari Domingik Aiaraldean bakarrik banatuko ditu eskutitzak (Urduña, Amurrio, Aiara, Laudio, Okondo, Artziniega, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo).

Bidalketa helbidea, kalea eta herria, ongi adierazi beharko dira eskutitzean, bestela ezingo da bidali.

Euskaraz dauden eskutitzak bakarrik erantzungo dira.

Info+ eta zalantzetarako:

722 22 75 32 (Aritz)

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aiaraldeko Hezkuntza Faktoria

HEZKUNTZA


Itzal ona




Hona hemen mailu-arrain bat, olagarro bat eta bi sardina. Zein da horien itzal zuena?

Engainagarriak

Zortzi txatal horien artetik erdiak iruditik hartuta daude, eta gainontzeko laurak engainagarriak dira. Hau da, ez dator bat irudi nagusiarekin.





Soluzioak



Kontra
Aiaraldetik mundura



LANDER SAGARTZAZU

JAIOTERRIA
AMURRIO (2006)

BIDAIAREN XEDEA
ERASMUS PROGRAMARI ESKER UNIBERTSITATE IKASKETAK GARATZERA JOAN DA MEXIKORA

“MEXIKOKO GIZARTEA OSO ANITZA DA, KULTURA, OHITURA ETA TRADIZIO DESBERDIN ASKO DAUDE”

Mexikon zaude Erasmus programari esker. Non zehazki?

Queretaron nago. Hiri oso oso handia da, 2.6 miloi biztanle dituen hiria. Queretaro Mexikoko hiri seguruenetakoa da, horregatik biztanleria gero eta handiagoa da. Horrez gain, lan asko dagoenez, Mexikoko beste hirietatik Queretarora etortzen dira lana aurkitzera.

Mexikoko beste tokiren bat ezagutzeko tartea izan duzu ere?

Bai, Teotihuacánen egon nintzen, piramideak ikusten. Baita ere Meridan (Yucatan) egon nintzen nire unibertsitateko lagun batzuei bisita egiten, eta duela gutxi Guanajuaton egon naiz. Aste bat barru Bacalar eta Tulumera joango naiz eta abenduan Guatemala eta Costa Rica bisitatuko ditut. Gehien harritu nauena, irakasleekiko duten errespetua da, irakasle guztiei “señor profesor”, “señora profesora” deitzen diete. Horrez gain, asko gustatu zait familiari ematen dioten garrantzia, jendearen gertutasuna eta ohiturak belaunaldiz belaunaldi mantentzeko duten modua. Gainera, asko harritu nau Mexikon dagoen paisaia, janari eta bizimodu aniztasunak.

Nolakoa da bertako gizartea?

Mexikoko gizartea oso anitza da, kultura, ohitura eta tradizio desberdin asko daude. Familia oso garrantzitsua da mexikarrentzat, eta normalean familiarekin denbora pasatzea eta ospakizunak elkarrekin egitea gustatzen zaie. Gaur adibidez “Dia de Muertos” da (01/11/2026) eta nire ikaskideek beraien familiarekin eta ingurukoekin pasako dute egun. Baina ez denek, adibidez nire klaseko 3 ikaskideek hirigunera eramango naute tradizioa bizi ahal izateko.

Zeintzuk esango zenituzke direla Mexiko eta Aiaraldearen arteko derdintasun nagusiak

Mexiko eta Aiaraldearen arteko desberdintasun nagusiena segurtasuna da. Lehenengo egunetik adierazi ziguten Euskal Herrian ez geundela eta kontuz ibili behar ginela. Duela gutxi Erasmusean zegoen neska bat hil zuten Queretarotik autoz 3-4 ordutara. Orain arte bizi dudan esperientzia “arriskutsu” bakarra nire unibertsitate kanpoan tiroteo bat egon zela izan da. Pertsona batek auto bat lapurtu ostean ihes egin zuen eta poliziak pertsona hori gelditzeko autoari pare bat tiro eman zion. Horrez gain, ez dut esperientzia txarrik eduki baina kontuan eduki behar da Mexikoko hiri seguruenetako batean nagoela.

Beste desberdintasun nagusibat pertsonengan dago, unibertsitatean ezagutu ditudan ia pertsona guztiak oso irekiak dira, Mexikoko jatetxeak, diskotekak, leku bereziak ezagutzeko aukera ematen dizute lehenengo egunetik. Euskal Herrian aldiz uste dut denbora gehiago behar dugula pertsonek konfiantza hori adierazteko.

Badago antzekotasunik?

Bai, adibidez bi lekuetan familiak garrantzi handia du, eta familiarekin denbora pasatzea eta ospakizunak elkarrekin egitea gustatzen zaie. Bi kulturetan ere janariak garrantzi handia du, lagunekin eta familiarekin elkartzeko aitzakia izaten da. Mexikon zein Euskal Herrian herriko jaiak ospatzen dituzte, musikarekin, dantzarekin eta janariarekin. Eta garrantzitsuenetakoa, Mexikok eta Euskal Herriak bere kultura, hizkuntza eta tradizioak mantentzeko interesa dute.

Noiz arte geratuko zara bertan? Zer asmo dituzu datozen hilabeteetarako?

Klaseak bukatu ostean Guatemala eta Costa Rica bisitatuko ditut Meridan dauden nire unibertsitateko lagunekin eta gero Amurriora bueltatzea da nire ideia.

MEXIKO



DESKRIBAPENA
Mexikoko Estatu Batuak Amerika hegoaldeko herrialde burujabea da. 31 estatu eta barruti federal batean dago banatua. Hiribura Mexiko Hiria munduko bigarren hiririk populatuena da.

AZALERA
1.972.550 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
134 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Gaztelania (ofiziala ‘de facto’). Zazpi milioi lagun baino gehiago mintzo dira hizkuntza amerindiarretan. Horien artean: nahuatl, tarahumara, yaqui, o’odham, maia hizkuntzak, mazateco, zapotec, mixtec eta beste hainbat.